

EUSKARAZ bizitzeko eta lan egiteko eskubidearen alde

Euskaldunon oinarritzko hizkuntza eskubideen aurkako oldarraldi antolatua martxan da. Eragile sindikal, politiko eta mediatiko batzuk euskararen biziberritzeari trabak ezartzeko presio antolatua eragiten ari dira eta erantzun antolatua ezinbestekoa dugu. Euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea gauzatu dadin neurriak hartu daitezela besterik ez dugu eskatzen.

ELAK, LABek eta Steilasek euskaraz lan egiteko eskubidea aldarrikatzen dugu. Beste eragile batzuk, aldiz, administrazioaren euskalduntzea zapuzteko azpizokotan dabilta, gaztelaniaren nagusitasuna inposatzeko asmoz; hori guztia salatu duten euskalgintza eta euskaltzaleak kriminalizatzen saiatzen ari dira. Kriminalizazio horrek helburu politiko argia du, PSE-EE alderdiarentzat onargarriak diren lege-proposamenak adostea. ELAK, LABek eta Steilasek eragile sindikal eta politiko guztien zilegitasuna defendatzen dugu beren iritzia emateko, baina onartezina iruditzen zaigu gaztelaniaren nagusitasuna inposatzea beste helbururik ez duten eragileei beto eskubidea ematea edota euskaldunon hizkuntza eskubideen zapalkuntza ontzat ematea.

Eusko Legebiltzarrean EAEko egitura politikoa eztabaidatzeko eta Enplegu Publikoaren Legea moldatzeko prozesuak irekita daude. Momentu garrantzitsu baten aurrean gaude, herritar guztien hizkuntza eskubideak parekatuko dituzten lege bermeak eztabaidatu litezke edo jendartearen zein administrazio publikoetan azken urte luzeetan egindako ibilbidean atzerapauso nabarmenak ekarriko dituen erabakiak hartu. Orain da unea, euskaltzaleon hizkuntza eskubideen bermea jokoan dago!

Euskaldunon hizkuntza eskubideak oro har zapalduak daude eta bizitzako funtzio guztietan euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea aldarrikatu beharra dago. Aurrekoa esanik, zerbitzu publikoetan ez bada euskarazko zerbitzua bermatzerik, ez euskaraz lan egiteko eskubidea gauzatzetik, ezinezkoa izango da bizitzako beste edozein esparrutan euskalduntzean urrats esanguratsuak egitea. Horregatik, ELA, LAB eta Steilasentzat ezinbestekoa da Enplegu Publikoaren Legearen eztabaidan abiapuntu gisa hartzea bi hizkuntzen exijentzia parekatzen duen lege-proposamena.

Eragile euskaltzaleen bazterketaren adierazle da

ere Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordeko Eremu Sozioekonomikoko taldetik ELA eta LAB kanporatu izana, bi sindikatuok izan garenean lan mundua euskalduntzeko neurri ausartagoak eta baliabideak exijitu ditugunak.

Oldarraldi antolatuak erantzun antolatua behar duelako, ELAK, LABek eta Steilasek euskal langile eta euskaltzale guztiei dei egiten diete, helburu hauekin:

- » Lan mundua euskalduntzeko neurriak eta arauak onartzea:
- » Enplegu Publikorako Legearen aldaketak ezinbestean hiru oinarri izan ditzan:
 - » Euskararen eta gaztelaniaren exijentzia parekatzea.
 - » Parekatze horretarako epemuga eta helburuak zehaztea
 - » Zehaztutako epemuga horretan euskararik ez dakiten langile publiko guztiei euskalduntzeko aukera, denbora eta baliabideak eskaintzea.
- » Lantoki pribatuetan euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko plangintzak negoziatzea eta bultzatzea, baliabide nahikoa jarritz, euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu arte.
- » EAEn euskarak eta gaztelaniak ofizialtasun maila bera izan dezaten aldarrikatzea edozein estatus juridikoren eztabaidaren abiapuntu gisa.
- » Euskaldunon hizkuntza eskubideak defendatzen dituzten eragile guztiak babestea, eta Eusko Jaurlaritzak ELA eta LAB baztertzeko hartu duen erabakia salatzea.

Euskaldunon aurkako zapalkuntza eta bazterketa saiakeren aurrean, kaleak betetzeko eta gure buruak antolatzeko deia egiten dugu ELAK, LABek eta Steilasek. Maiatzaren 9an langile gisa eta euskaltzale gisa Bilbora joango gara lehen urratsa emanez; ondoren, ekainaren 13an, Euskalgintzaren Kontseiluak deituta, Iruñea euskaltzalez beteko dugu.

Langile eta euskaltzale, maiatzaren 9an Bilbora, ekainaren 13an Iruñera.

MANIFESTAZIOA: Maiatzaren 9an, Bilbon, Jesusen Bihotzean 17:30ean

ELA • LAB • STEILAS

Por el derecho a vivir y trabajar en EUSKARA

Una ofensiva organizada contra los derechos lingüísticos básicos de los y las euskaldunes está en marcha. Algunos agentes sindicales, políticos y mediáticos están presionando de forma organizada para obstaculizar la revitalización del euskera y nos resulta imprescindible una respuesta organizada. Solo pedimos que se tomen medidas para que se haga efectivo el derecho a vivir y trabajar en euskera.

ELA, LAB y Steilas reivindicamos el derecho a trabajar en euskera. Otros agentes, en cambio, están recurriendo a artimañas para truncar la euskaldunización de la administración con el fin de imponer la supremacía del castellano. Intentan criminalizar el movimiento a favor del euskera y a las y los euskaltzales que han denunciado todo esto. Una criminalización que tiene un claro objetivo político, acordar propuestas de ley que sean aceptables para el PSE-EE. Los sindicatos ELA, LAB y Steilas defendemos la legitimidad de todos los agentes sindicales y políticos para expresar sus opiniones, pero nos parece inadmisibile que se reconozca el derecho a veto a agentes que no tienen otro objetivo que imponer la supremacía del castellano o aceptar la vulneración de los derechos lingüísticos de los y las euskaldunes.

En el Parlamento Vasco están abiertos los procesos para debatir sobre la estructura política de la CAV y modificar la Ley de Empleo Público. Estamos ante un momento importante en el que se podrían debatir las garantías legales que equiparán los derechos lingüísticos de todas y todos los ciudadanos o tomar decisiones que supongan un retroceso significativo en el camino recorrido en los últimos años en la sociedad y en las administraciones públicas. Ahora es el momento, ¡está en juego la garantía de los derechos lingüísticos de las y los euskaltzales!

Los derechos lingüísticos de las y los euskaldunes están conculcados en general y hay que reivindicar el derecho a vivir y trabajar en euskera en todas las funciones de la vida. Dicho lo anterior, si en los servicios públicos no se puede garantizar el servicio en euskera y no se puede ejercer el derecho a trabajar en euskera, no será posible dar pasos significativos en la euskaldunización de cualquier otro ámbito de la vida. Por ello, para ELA, LAB y Steilas es imprescindible que en el debate de la Ley de Empleo Público se tome como punto de partida una proposición de ley que equipare la exigencia de ambas lenguas.

La expulsión de ELA y LAB del grupo del Ámbito So-

cioeconómico del Consejo Asesor del Euskera por parte del Gobierno Vasco, es otro indicador de la exclusión de los agentes euskaltzales, siendo precisamente los dos sindicatos quienes hemos exigido medidas más audaces y recursos para lograr la euskaldunización del mundo laboral.

Porque la ofensiva organizada precisa de una respuesta organizada, ELA, LAB y Steilas hacemos un llamamiento a todos y todas las trabajadoras y euskaltzales, con los siguientes objetivos:

- » Aprobación de medidas y normas para la euskaldunización del mundo laboral:
- » Para que la modificación de la Ley de Empleo Público tenga necesariamente tres bases:
 - » Equiparar la exigencia de euskera y castellano.
 - » Definir un plazo y unos objetivos para ello.
 - » Ofrecer posibilidades, tiempo y recursos para euskaldunizarse a todas y todos los trabajadores públicos que no sepan euskera.
- » En los centros de trabajo privados, negociar e impulsar planificaciones a favor de los derechos lingüísticos de las y los euskaldunes, poniendo recursos suficientes, hasta garantizar el derecho a trabajar en euskera.
- » Reivindicar que el euskera tenga el mismo nivel de oficialidad que el castellano en la CAV como punto de partida del debate de cualquier estatus jurídico.
- » Apoyar a todos los agentes que defienden los derechos lingüísticos de las y los euskaldunes y denunciar la decisión del Gobierno Vasco de excluir a ELA y a LAB.

Ante los intentos de oprimir y excluir a los y las euskaldunes, ELA, LAB y Steilas llamamos a llenar las calles y a organizarnos. El 9 de mayo estaremos en Bilbo como trabajadores y trabajadoras y como euskaltzales dando el primer paso; posteriormente, el 13 de junio, a convocatoria de Euskalguntzaren Kontseilua, llenaremos Iruñea de euskaltzales.

Trabajador, trabajadora y euskaltzale, el 9 de mayo a Bilbo, el 13 de junio a Iruñea.

MANIFESTACIÓN: El 9 de mayo, en Bilbo, en el Sagrado Corazón a las 17:30

ELA • LAB • STEILAS